

7. ENPLEGU SAILA	7. ÁREA DE EMPLEO
7.1. 2026ko DEIALDIA: DIRU LAGUNTZAK ARRASATEKO ENPRESETAN HERRIKO LANGABEAK KONTRATATZEKO	7.1. CONVOCATORIA 2026: SUBVENCIONES PARA CONTRATAR DESEMPLEADOS/AS DE ARRASATE EN EMPRESAS DEL MUNICIPIO
1. Artikulua.- Helburua eta aplikazio eremua	Artículo 1.- Objeto y ámbito de aplicación.
<p>Programa honen helburua da Arrasateko enpresetan herriko langabeen kontratazioak sustatzea; diruz lagunduko diren lan kontratuak gutxienez 6 hilabetekoak izango dira, gutxienez egun 1/2ko jardunekoak, 250 langile edo gutxiago dituzten Arrasateko enpresetan.</p>	<p>Este programa pretende fomentar la contratación de desempleados/as del municipio en empresas de Arrasate; se subvencionarán los contratos de duración igual o mayor a 6 meses, como mínimo a ½ jornada, realizados por empresas de Arrasate de 250 trabajadores/as o menos.</p>
<p>Bestalde, emakumezkoek, lanari dagokionez, gure gizartean pairatzen duten arrakalari aurre egitea irizpidea izanik, Arrasateko Udalak emakumeen kontratazioa sustatu nahi du, eta hartara, berdintasunerantz pausoak eman nahi dira programa honen bitartez.</p>	<p>Por otro lado, con el objetivo de hacer frente a la brecha que afecta a las mujeres en cuanto al empleo en nuestra sociedad, el Ayuntamiento de Arrasate mediante este programa trata de fomentar la contratación de mujeres, y así avanzar hacia la igualdad.</p>
2. Artikulua.- Enpresa onuradunen ezaugarriak	Artículo 2.- Características de las empresas beneficiarias.
<p>Programa honen diru laguntzen onuradunak enpresak eta irabazi-asmorik gabeko entitateak (fundazioak, elkarteak, GKEak...), baldin eta zerga eta lan arloko betebeharrak egunean badituzte eta betekizun hauek betetzen badituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> a.- Enpresak lantokia Arrasaten edukitzea b.- Enpresak 250 langile edo gutxiago edukitzea. c.- Kontratutako langabeak Arrasatekoak izatea 	<p>Podrán optar a estas ayudas tanto empresas como entidades sin ánimo de lucro (fundaciones, asociaciones, ONGs...), siempre que se hallen al corriente de sus obligaciones fiscales y laborales, y reúnan estas condiciones:</p> <ul style="list-style-type: none"> a.- Disponer de centro de trabajo en Arrasate. b.- Disponer de 250 trabajadores/as o menos en plantilla c.- Que contraten desempleados/as de Arrasate
3. Artikulua.- Kontratzen diren pertsonen ezaugarriak:	Artículo 3.- Condiciones a cumplir por las personas a contratar:
<p>Enpresak diru laguntza eskuratzeko, kontratatzen dituen pertsonen ezaugarri hauek izan beharko dituzte:</p>	<p>Para que la empresa o entidad opte a estas ayudas, las personas que contrate deberán reunir los siguientes requisitos:</p>
<p>a.- Arrasaten erroldatuta egotea, gutxienez 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera. Era berean, dirulaguntza eskaerari atxikitako kontratua formalizatu baino gutxienez egun bat lehenago Arrasaten berriz erroldatutako pertsonen kasuak ere onartuko dira, baldin eta aurretik 10 urte edo gehiago jarraian Arrasaten erroldatuta egon badira.</p>	<p>a.-Hallarse empadronadas en Arrasate, como mínimo desde 1 de enero de 2026. También se admitirán los casos de personas que se hubieran reempadronado en Arrasate con al menos un día de antelación a la formalización del contrato por el que se pide la subvención, siempre que hubieran estado anteriormente empadronadas en Arrasate durante 10 ó más años de forma continuada.</p>

b.- Diru laguntza eskaerari lotutako lan kontratua formalizatzen den unean langabezian egotea.	b.-Estar desempleadas cuando se formalice el contrato referido en la solicitud de subvención.
c.- Kontratua formalizatu baino, gutxienez, egun bat lehenago Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea lan eskatzaile gisa	c.-Estar inscritas en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo como demandante de empleo al menos un día antes de la fecha de formalización del contrato.
d.- Enpresa berean kontratatua ez izana, diruz lagundu nahi den kontratua sinatu baino 6 hilabete lehenago gutxienez.	d.-No haber sido contratadas por la misma empresa en los últimos 6 meses previos al contrato por el que se solicita la subvención.
Bestalde, azpimarratu behar da programa honen bidez iraupen mugagabeko kontratuetatik diru-laguntza eskatzen den kasuetan, kontratu horiek ezingo direla erabili <i>“Arrasateko enpresentzako laguntzak: sortu berriak – negozioen eskualdatzeak – jardueraren dibertsifikazioa”</i> programaren bitartez diru laguntza lortzeko. Kasu horietan, enpresak bi laguntza-lerroetako bat aukeratu beharko du.	Por otro lado, señalar que los contratos de duración indefinida por los que se pida subvención a través de este programa no se podrán hacer valer para solicitar subvención a través del programa de <i>“Ayudas a empresas de Arrasate: nueva creación-traspaso de negocio-diversificación de actividad”</i> , siendo necesario en dichos casos optar por una de las dos líneas de ayuda.
4. Artikulua.- Diruz lagunduko diren kontratuen betekizunak	Artículo 4.- Requisitos de los contratos subvencionables
Diru laguntzak eskuratzeko, kontratuek ezaugarri hauek beteko dituzte: a.- Gutxienez 6 hilabete iraungo dute. b.- Gutxienez egun 1/2ko lan jardunekoak. c.- Kontratuak hasiko dira 2025eko azaroaren 1a eta 2026ko urriaren 31 bitartean. d.- Kontratuek enpresako langile kopurua gehituko dute (aurreko 6 hilabetetako plantilarekin alderatuta).	Serán subvencionables los contratos que reúnan estos requisitos: a.- Duración de 6 meses o superior. b.- Dedicación mínima de 1/2 jornada. c.- Fecha de inicio de los contratos: entre el 1 de noviembre de 2025 y el 31 de octubre de 2026 d.- Que supongan incremento neto de la plantilla (respecto a los 6 meses anteriores)
5. Artikulua.- Programaren diru disponibilitatea	Artículo 5.- Disponibilidad económica del programa
Programa honen 2026rako deialdiak 50.000 €ko zuzkidura du, eta 2026ko Udal Aurrekontuko 1.0710.471.241.00.00 “Langabeak Kontratazioarako Laguntzak” kontu sailaz baliatuko da.	La convocatoria 2026 de este programa cuenta con una consignación de 50.000 € que se canalizará a través de la partida 1.0710.471.241.00.00 “Langabeak Kontratazioarako Laguntzak” del Presupuesto Municipal 2026.
Ezarritako diru kopurua agortutakoan bukatutzat emango da programa, udalak propio erabaki ezean kreditua handitzea.	El programa se dará por concluido cuando su consignación presupuestaria se agote, a no ser que el Ayuntamiento expresamente decida aumentar dicho crédito.
6. Artikulua.- Diru laguntzaren zenbatekoa	Artículo 6.- Cuantía de la subvención
Diru laguntzaren zenbatekoa urtero eguneratzen da, urteko KPIren arabera, beti ere indizea positiboa izan bada; indizea negatiboa izanez gero, aurreko urteko kopurua mantentzen da.	La cuantía de la subvención se actualiza anualmente en función del IPC anual, siempre que haya resultado un índice positivo; en caso de que dicho índice sea negativo, se mantiene la cuantía del año anterior.

<p>2025 amaieran urteko KPIa 2,9 izan denez, 2026ko deialdiko diru-laguntzaren zenbatekoa 2.783 €-koa izango da, egun osoko jardunerako 6 hilabeteko kontratu bakoitzerako.</p>	<p>El IPC anual a fin de 2025 ha sido 2,9. Por tanto, la cuantía de la subvención de la convocatoria 2026 será de 2.783 € por cada contrato de 6 meses a jornada completa.</p>
<p>Egun zatiko jardunen kasuan, diru laguntzaren zenbatekoa kontratuaren lan jardunaren ehunekoaren arabera doitu da.</p>	<p>En caso de jornadas parciales, la cantidad se ajustará según el porcentaje de jornada del contrato en cuestión.</p>
<p>Pertsona beragatik gehienez kontratu bat diruz lagundu ahalko da. Enpresa bakoitzak, printzipioz, 3 kontratugatik jaso ahalko du laguntza deialdi bakoitzean. Kontratu gehiagotatik diru laguntza eska daiteke, baina eskaera horiek deialdiaren indarraldia bukatutakoan aztertuko lirateke, eta diru laguntza jaso ahalko lukete programa honendako Udalak ezarritako kreditua momentu horretan oraindik agortuta ez balego; kasu horretan, Udalak finkatuko luke kontratu bakoitzeko diru laguntzaren zenbatekoa, programaren kreditu disponibilitatearen arabera. Era berean, programa honen edizio desberdinetan zehar, enpresa bakoitzak gehienez 10 kontratugatik ahalko du diru laguntza eskuratu.</p>	<p>Por una misma persona sólo se podrá subvencionar un contrato. En un principio, cada empresa sólo podrá percibir subvenciones en cada convocatoria por un máximo de 3 contratos. Sin embargo, las empresas podrán solicitar subvención por más contratos, solicitudes que permanecerán en reserva hasta el final del programa, momento en el cual, si el crédito destinado al programa no se hubiera agotado, tras ser valoradas, podrían percibir subvención; en tal caso, el Ayuntamiento establecería la cuantía de la subvención, en función del crédito disponible y del número de solicitudes concurrentes. Así mismo, queda establecido que cada empresa podrá optar a lo largo de sucesivas ediciones de este programa a un máximo de 10 contratos subvencionados.</p>
<p>Kontratatu den langabea emakumezkoa den kasuetan, diru laguntza %20 gehiagokoa izango litzateke.</p>	<p>En el caso de que la persona desempleada sea una mujer, se incrementará la cantidad de la subvención en un 20%.</p>
<p>Diruz lagunduko diren kontratuak mugagabeko iraupenekoak diren kasuetan (bai jatorriz, bai 6 hilabeteko horretan zehar horretara bihurtuta), diru laguntzaren zenbatekoa %20an handituko da. Gehitutako %20 hori diruz lagundutako kontratua hasi eta 12 hilabete igarotakoan ordainduko zaio enpresari.</p>	<p>En el caso de que los contratos a subvencionar sean de tiempo indefinido, bien en su inicio, bien convertidos en indefinidos durante los seis meses a subvencionar, la subvención por puesto de trabajo se incrementará en un 20%. La cantidad incrementada se abonará a la empresa una vez transcurrido un año desde el inicio del contrato subvencionado.</p>
<p>Halaber, Arrasateko Udalak gorde egiten du eman beharreko diru kopuruak murriztu edo deuseztatzeko ahalmena hauen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresak kontzeptu beragatik jasotako beste diru-laguntzak • Programa honen oinarrian esplizituki jaso ez diren beste gorabehera batzuk, baina Udalak, programaren koherentzia bermatzearren, garrantzitsutzat jotzen dituenak. 	<p>No obstante, el Ayuntamiento se reserva la facultad de reducir o anular esta cantidad en función de:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Que la empresa perciba otras subvenciones por el mismo o similar concepto. • Otras circunstancias no recogidas explícitamente en esta convocatoria que el Ayuntamiento tome en consideración, en aras a garantizar la coherencia del programa.
<p>7. Artikulua.- Diru laguntza eskatzeko modua</p>	<p>Artículo 7.- Forma de solicitar las subvenciones.</p>

<p>Diru laguntzak eskatzeko ondoko dokumentazioa aurkeztuko du enpresak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Eskaera orria beteta 2. Enpresaren IEZren alta egiaztagiria 3. Zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzaren eguneratutako ordainketen agiria, diru laguntza eskaera aurkezteko uneari dagokiona. (*) 4. Bataz besteko langile-plantilaren agiria Gizarte Segurantzak emana, diruz laguntzea nahi diren kontratuak hasi aurreko 6 hileko tarteari dagokiona. 5. Laguntza eskatzen deneko lanpostuen kontratuen kopia 6. Dirulaguntza eskatzen deneko langileen bizitza laboral osoaren ziurtagiria 7. Langilea, kontratatze momentuan, langabe moduan Lanbide Euskal Lan Zerbitzuan inskribatuta egotearen agiria. 8. Laguntza eskatzen deneko lanpostuen titularidunaren NAREN kopia 9. Enpresaren ordezkariaren NAREN kopia 10. Laguntza eskuratuz gero, dirua ingresatu beharko litzatekeen kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria. 11. Beste dirulaguntzei buruzko adierazpen erantzulea. 12. Arrasateko Udalari beharrezkoa iritzi gero, kasu bakoitzean eska lezakeen beste dokumentazio gehigarria. 	<p>La empresa solicitante deberá presentar la siguiente documentación:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Impreso de solicitud cumplimentado. 2. Justificante de alta en el IAE de la empresa 3. Certificados de estar al corriente de pagos a Hacienda y Seguridad Social en el momento de presentar la solicitud de subvención. (*) 4. Certificado de la Seguridad Social, referido a plantilla media de trabajadores en los 6 meses anteriores al inicio del contrato por el que se solicita subvención. 5. Copia de los contratos por los que se solicita la subvención. 6. Certificado de vida laboral completa de los titulares de los puestos a subvencionar. 7. Documentación acreditativa de que los/as trabajadores/ en el momento previo a ser contratados se hallaban inscritos como desempleados en Lanbide Servicio Vasco de Empleo. 8. Copia del DNI de los titulares de los puestos a subvencionar. 9. Copia del DNI del representante legal de la empresa 10. Documento que acredite la titularidad de la cuenta en la que, en su caso, se debería abonar el importe de la subvención. 11. Declaración responsable relativa a otras subvenciones. 12. Otra documentación adicional que el Ayuntamiento de Arrasate estimara oportuno requerir en cada caso.
<p>(*) Dirulaguntzen oinarri orokorren 7.g) artikuluan jasotzen den legez, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen artikuluan aitortzen duenari jarraiki, Arrasateko Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu.</p>	<p>(*) Tal y como se recoge en el artículo 7.g) de las bases generales de las subvenciones, tal y como se reconoce en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el Ayuntamiento de Arrasate podrá consultar o recabar dichos documentos, salvo que el interesado se oponga a ello.</p>
<p>Dirulaguntza eskabideak aurkeztu ahalko dira:</p>	<p>Las solicitudes de subvención podrán presentarse:</p>
<p>- Udalaren egoitza elektronikoaren bidez https://www.arrasate.eus/eu/tramiteak/eskabide-oroak (derrigorrezkoa persona juridikoentzat)</p>	<p>- A través de la sede electrónica del Ayuntamiento, en la dirección https://www.arrasate.eus/es/tramites-online/portal-del-ciudadano (obligatorio para las personas jurídicas)</p>
<p>- Aurrez aurre BAZen (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua), pertsona fisikoentzako aukerakoa.</p>	<p>- Presencialmente en el BAZ (Servicio de Atención a la Ciudadanía), opcional para las personas físicas.</p>

<p>- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako gainerako moduetan.</p>	<p>- En las demás formas legalmente previstas conforme a la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.</p>
<p>BAZ, jendaurreko ordutegia:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Astelehenetik egubakoitzera: 7:30 - 15:00 - Eguenak: 7:30 - 18:30 - Zapatuak: 9:00 - 13:00 - Abuztuan astelehenetik egubakoitzera: 8:30-14:00 	<p>BAZ, horario de atención al público:</p> <ul style="list-style-type: none"> - De lunes a viernes 7:30 - 15:00 - Jueves: 7:30 - 18:30 - Sábados: 9:00 - 13:00 - En agosto, de lunes a viernes 8:30-14:00
<p>8. Artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea.</p>	<p>Artículo 8.- Plazo de solicitud.</p>
<p>Eskaerak aurkezteko epea irekita egongo da 2026ko programaren deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta ondorengo egunetik aurrera, 2026eko urriaren 31 arte.</p>	<p>El plazo de presentación de solicitudes permanecerá abierto desde el día siguiente de la publicación de la convocatoria 2026 del programa en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, hasta el 31 de octubre de 2026.</p>
<p>9. Artikulua.- Izapide-unitatea, prozedura eta eskaerak ebaztea</p>	<p>Artículo 9.- Unidad tramitadora, procedimiento y resolución de solicitudes</p>
<p>Programa honen espedienteak tramitatzeaz Enpleguko unitate administratiboa arduratuko da.</p>	<p>La tramitación de los expedientes de este programa corresponderá a la unidad administrativa de Empleo.</p>
<p>Eskaerak lehiarik gabeko prozeduraz izapidetuko dira, hau da, aurkeztutako ordenan aztertu eta erresolbituko ditu Udalak, programaren kreditua agortu arte.</p>	<p>Las solicitudes se tramitarán según el procedimiento de concurrencia no competitiva, es decir, se resolverán por orden de presentación, hasta que se agote la consignación presupuestaria.</p>
<p>Eskabideak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek antzemandako akatsak zuzentzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazten duen hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.</p>	<p>Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o se valore como incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento efectuado por el Ayuntamiento para subsanar los defectos detectados.</p>
<p>Horiek zuzendu barik emandako epea igaroz gero, Udalak ez du onartuko diru-laguntza eskabidea, eta beste tramiterik gabe artxibatu egingo du espedienteak.</p>	<p>Transcurrido el plazo concedido sin que éstos hayan sido subsanados, se tendrá por desistida la solicitud de subvención, procediéndose sin más trámite al archivo del procedimiento.</p>
<p>10. oinarria.- ordaintzeko modua</p>	<p>Artículo 10.- Forma de pago</p>
<p>Laguntzaren ordainketa lan kontratua hasi eta 6 hilabete pasatakoan gauzatuko da. Horretarako, enpresak Udalari ondoko dokumentazioa aurkeztuko dio, justifikazio gisa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Soldata eta Gizarte Segurantzako ordainketen egiaztagiriaren kopiak 	<p>Las subvenciones serán abonadas a la empresa una vez transcurridos 6 meses desde el inicio del contrato, previa presentación por la empresa de la siguiente documentación justificativa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Copia de los comprobantes de pagos de salarios y cuotas de Seguridad Social.

<ul style="list-style-type: none"> • Zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzako ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak • Kontratututako langileen bizitza laboral osoa epealdiaren amaierako datan. • Langile kopurua handitu izanaren agiria (bataz besteko langile-plantilaren agiria Gizarte Segurantzak emana, diruz laguntzari atxikitako lan kontratuak hasi eta hurrengo 6 hileko tarteari dagokiona). 	<ul style="list-style-type: none"> • Certificados de estar al corriente de pagos con Hacienda y Seguridad Social. • Vida laboral completa de los/as trabajadores al finalizar el periodo a subvencionar. • Documentación acreditativa del incremento de plantilla (certificado por la Seguridad Social, referido a plantilla media de trabajadores durante los 6 meses transcurridos a partir del inicio del contrato por el que se solicita subvención.
<p>Iraupen mugagabeko lan kontratuen kasuan, %20 gehigarria Udalak ordainduko dio enpresari kontratua hasi zenetik 12 hilabete igarotakoan, azken sei hilekoari dagokion ondoko dokumentazioa aurkeztutakoan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Soldata eta Gizarte Segurantzako ordainketen egiaztagiriaren kopiak • Zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzako ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak. 	<p>En el caso de los contratos indefinidos, el incremento del 20% será abonado por el Ayuntamiento a la empresa, una vez transcurridos 12 meses desde el inicio de dicho contrato, previa presentación de la siguiente documentación relativa a los últimos seis meses:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Copia de los comprobantes de pagos de salarios y cuotas de Seguridad Social. • Certificados de estar al corriente de pagos con Hacienda y Seguridad Social.
<p>Dokumentazio justifikatzailea Udaleko Enplegu Sailak aztertuko du, hitzartutako guztia betetzen dela bermatzeko; udal sail horrek onespenez txostena emandakoan, diru laguntza ordainduko dio Udalak enpresari.</p>	<p>La unidad administrativa de Empleo se ocupará de revisar que se cumpla lo acordado en relación a esta subvención, y emitirá el informe necesario para que el Ayuntamiento abone a la empresa la subvención acordada.</p>
<p>11. oinarria.- beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna</p>	<p>Artículo 11.- Compatibilidad con otras subvenciones</p>
<p>Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira kontzeptu beragatik diruz laguntzeko erakunde publiko edo pribatuetatik jasoko diren bestelako laguntzekin, beti ere gain-finantzazioa gertatzen ez bada; kasu horretan, programa honen bidez emandako laguntza soberako zenbatekoan gutxituko da.</p>	<p>Las ayudas previstas en el presente programa serán compatibles con otras ayudas provenientes de organismos públicos o privados y que subvencionen los mismos conceptos, siempre que no se incurra en sobrefinanciación; de superarse dicho umbral, la subvención a otorgar a través de este programa se reducirá en la cantidad sobrepasada.</p>
<p>Bestalde, kontratu bererako guztira ematen den laguntzen zenbatekoa ez da inola ere izango soldata kostu gordinetik gorakoa. Diru-laguntza handiagoa balitz, Arrasateko Udalaren diru-laguntza gutxituko litzateke, soldata kostu gordinaren gaindikoz zatian.</p>	<p>Por otro lado, en ningún caso la cantidad a abonar, en concurrencia con otras ayudas para la misma contratación, será superior al coste salarial bruto. Si se produjera tal supuesto, se reducirá el importe de la subvención a conceder por el Ayuntamiento de Arrasate en el exceso respecto al coste salarial bruto.</p>
<p>12. oinarria.- arau aplikagarria.</p>	<p>Artículo 12.- Normativa reguladora</p>
<p>Deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztian, hauek aplikatuko dira: Arrasateko Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden arauak, gai honi aplikatu dakizkikeenak.</p>	<p>En todo lo no previsto en la presente convocatoria, será de aplicación la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, General de Subvenciones, y demás normativa vigente aplicable a esta materia.</p>